

# Hitzaurre gisa

**Belen Uranga**

*Soziolinguistika Klusterra*

b.uranga@soziolinguistika.org



**Hizkuntza-ekologia azken urteetan ildo teoriko ezberdinetatik garatzen ari den esparrua da, bai nazioartean eta baita gure artean ere.** Badirudi, nolana ere, azken urteetako garapen teoriko horiek ez dutela aurkitu oraindik garapen praktikorako jauzi esanguratsua egiteko modua.

Soziolinguistika Klusterrak izan du gai horren inguruko jakin-minaren berri euskarraren biziberritze-lanetan ari diren aditu eta arituren artean. Kezka horri erantzunez 2011. urteko hainbat ekimen egituratu ditu lotutako kate-begiz osatutako prozesu baten modura.

Kate horren lehen begia izan zen, hain zuzen, udaberriaren egin genuen adituen arteko mintegiko eztabaida-saioa, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. Bertan, Albert Bastardas, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslearen laguntzaz, 25 aditu inguru elkartu ziren azken urteetako teoriaren inguruko adar berriez sakontze-lana egiteko. Kontuan izan behar da Albert Bastardas irakasleak urte

asko daramatzala hizkuntza-ekologiaren garapen teorikoa lantzen eta hedatzen, bai Katalunian eta baita nazioartean ere.

Ia aldi berean, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) ekimenez eta Klusterraren laguntzaz *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* izeneko Topaketa burutu zen Azpeitian. Ekologiaren ikuspuntutik aztertu zen, bertan, udalerri euskaldunek izan dezaketen ekintzetarako kokapen teorikoaren sendotzea, eta euskarari lehentasunezko funtzioak emateko praktika eredugarrien nondik norakoak.

Uda hurbiltzen hastearekin batera Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan gai honi heldu zion Soziolinguistika Klusterrak gaiaren sozializazioa indartu nahirik *Hizkuntza-ekologia. Teorioatik praktikara* izenburupean. Ikastaroan, Euskal Herriko adituez gain, Bartzelonako Unibertsitateko Carme Junyent irakaslea ere izan zen hizkuntza-aniztasunaz hitz eginez.

Urte amaierarekin batera zikloa boro-bildu nahi du BAT Aldizkariak, jakinik gaiak baduela oraindik, izatekotan, nondik heldu eta zer eskaini. Horretarako, urtean zehar landutako hainbat proposamen biltzen dituzten artikulua aurkezten ditu aldizkariko *Hizkuntza-ekologia euskararen ingurunean* izenburuko zenbaki monografiko honetan.

Lehen artikuluan **Albert Bastardasek** hizkuntza-ekologiaren gai zentralak aurkezten ditu. Azpimarratu nahi izan duen ideia nagusia honakoa da: hizkuntza bat salbatzeko, ez da hizkuntza bera salbatu behar, baizik eta haren habitata, hau da, haren garapeneremua, existentziaren testuingurua. Ildo horretatik, behin eta berriro adierazi du berdintasunaren printzipioa ez dagoela hizkuntza guztiak berdin tratatzearen baitan, egoera desberdinak berdin tratatzea bidegabekeria izango bailitzateke. Ez; berdintasunaren printzipioa aukera berdinak sortzeko neurriak hartzetik hurbilago dago. Aldi berean, hizkuntzen gai azaritzeko alde kognitiboa kontuan hartu beharraz, edo txikia izateak munduan kokatzeko modu berezia eskaintzen duenaren ideia ere azpimarratzeko modukoak dira.

**Soziolinguistika Klusterrean** egoki ikusi dugu era berean, ekologiatik hizkuntza ekologiarara doan jauzia azaltzeko sarrera teoriko labur bat eskaintzea, moda-kontu bat bainoago aukera errealak eskaintzen dituen teorizazio-modura ikusten baitugu, eta bide praktikoa izan dezakeelakoan euskara bezalako hizkuntzen biziberritze ahaleginetan. Horrela bada, *Ekologia biologikoa eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak* artikulua gaiaren sarrera modura planteatzen dugu.

**J. Inazio Markok** *Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* indar-idea berria azaldu du. Egungo gizartean hain eza-

guna, eta egin den globalizazioaren testuinguruan, enpresa munduan, *Gizarte Erantzukizunaren* kontzeptua garatu da. Eta abiapuntu horretatik eratorrita, *hizkuntzarekiko enpresen gizarte erantzukizunera* salto eginez, organizazioen alorretik komunitatearen alorrera eraman du kontzeptua. Horrela, *Hizkuntzarekiko Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna* indar-idea gisa gorpuztu du. Horrez gain, euskararen hizkuntza-ekosistemaren iraunkortasuna bermatzen eta euskara hizkuntzarekiko komunitatearen gizarte-erantzukizuna indartzen laguntzeko zenbait proposamen ere egin ditu artikuluan.

Hizkuntza-ekologiaren indarguneak eta ahuleziak hartu ditu gaitzat **Xabier Erizek** ondorengo artikuluan; balioen mailako kontzeptu moraletik aztertuz, biologiaren eta gizarte zientzien arteko paralelismoak azalduz. Amaitzeko, proposamen interesgarriak plazaratu Erizek aurrera begira: hizkuntzen ekologiaren kontzeptua koherentzia etikoan sakonduz berrindartzea eta ekologiaren ordeza iraunkortasuna kontzeptua erabiltzea, praktikan nahiz ikerkuntzan giza komunitateen iraupena dimentsio sozio-kulturala, ekonomikoa eta ekologikoa kontuan hartuta bilatzen duelako.

**Itziar Idiazabal** irakasleak munduko hizkuntza-aniztasunaren iraunkortasunari begira heziketa eleanitzak izan behar duen paperaz idatzi du bere artikulua. Nola erantzun —behar bezala— uniformetasuna eta homogeneotasuna bilatzen duen eskolatik, hain anitza den ikasleen nortasun eta gaitasun bakoitzari? Nola lortu eskolan (ama)hizkuntza-aren erabilera anitzari aurre egingo dion presakuntza? Horiek dira artikuluko honetan gaitzat hartutako galderak. Gizarte-mailako hizkuntza-aniztasuna eta hiztun eleanitzak gizarte modernoaren errealitatean kokatzen

du —munduko perspektibatik hartuta-, eta horrela hizkuntza-aniztasuna mantentzeko irtenbide bakarra hizkuntza gutxituak ere i(ra)ka(t)si beharreko ideia plazaratzen du. Heziketa eleanitzak leku propioa hartzen du ideia horren baitan, jakina, horretarako, hezkuntza-zientzien ekarpenak integratu beharraz ohartzen duelarik.

*Hizkuntza-ekologia Euskal Herrian gaur egun, eragileen ikuspegi* artikulupean, arestian aipaturiko mintegian landutako ideiak biltzen dira (*Hizkuntza-ekologiari buruzko Diziplinar-teko Mintegia*, Andoain). Han, bertaraturikoen artean sorturiko hausnarketak, kezak eta nondik norakoaren berri ematen da.

Zenbaki monografiko honi amaiera emateko Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Unibertsitateko Udako ikastaroetan *Hizkuntza-ekologia; teoriatik praktikara* izeneko ikastaroan eskainitako bi saio biltzen dituzten artikulua bana ekarri ditugu. Lehenak, Jon Sarasuak *Euskaldungoaren egungo beharrak eta hizkuntza-ekologia* izenburupean eginiko hitzaldiaren muina biltzen du, eta bigarrenak, *Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren onurak eta zailtasunak* izenburupean eginiko mahai-ingurukoarena.

**Jon Sarasuak** hizkuntza-ekologiaren definizio labur batekin eman zion hasiera hitzaldiari: *hizkuntza-ekologia etika duen jakintza da, jakintzara daraman begiratu etikoa*. Balio etikoen ideiak garatuz, dagoenaren aurreko jarrera zaintzailea finkatuz, dibertsitateak nola funtzionatzen duenaren jakintzarako jauzia egin beharraz hitz egin zuen. Sarasuak, bestalde, euskal komunitatearen ibilbide historikoa etika ekologikotik hurbil kokatu zuen *jarraidura* eta *irekidura* kontzeptuak elkarlotuz: *jarraidura* emandakoari jarraipena emateko gizakion sen kultural modura definituta eta *irekidura* unean unekoari

zabalik egotearen jarrera- modura azalduta. Gainera, euskararen iraunkortasunaren alde euskal komunitateak kontuan izan beharreko hainbat ideia plazaratu zituen, esate baterako, gaur egun –eta ziur asko etorkizunean ere– euskaldun izateak borondate edo ahalegin berezia eskatzen duenaren ideia. Azkenik, aurrean dagoen desafio handiari heltzeko jauzi kualitatiboak beharko direla planteatu zuen, bai eskumen-arloan eta baita estrategia-mailan ere.

Amaitzeko, aipa ditzagun labur bada ere, esandako mahai-inguruan agerian geraturiko hainbat ideia. Han izan ziren **Iñaki Martínez de Luna**, **Patxi Baztarrika** eta **Jon Sarasua** adituak. Hizkuntza-ekologiaren onurak eta zailtasunak aztertu ziren mahaietan, alderdi teorikotik abiatuz arrazoibideak sendotzen dituelako; diskurtso ekologikoaren aurka azaltzea zaila den arren balio etikoak aplikatzeak konpromisozko hautuak eskatzen dituela azpimarratuz. Ikuspegi ekologikoarekin zorrotz jokatzuz gero, konkrezio-mailan zailtasunak dituen arren, orain arteko bereizketa gaindiezinen arteko zubiak eraikitzeko moduko testuinguru bat eskaintzen duelako ideia zabaldu zen.

Horrela bada zenbaki honetara ekarri dugun edukia. Hasieran esaten genuen modura, *Hizkuntza-ekologia* teoriak eta praktikak eman du aurten zer pentsatua eta zer landua gure artean. Hala ere, ez gara ase. Pertsona askoren ahalegina beharko da oraindik nahi genukeen aterki hau behar bezala gara dadin. BAT aldizkaria honen inguruko lanketan jarraitzeko prestutasuna agertzen du, eta nahi duenak eskura izango du debate honetan parte hartzeko aukera. Bitartean, eskerrak ematea ezinbesteko dugu urte honetan ekimen desberdinetan parte hartu duten dozenaka laguni. •